ASTIBERRI



Palestina
Euskarazko edizioa

Gidoia eta irudiak: **Joe Sacco**
Itzulpena: **Julen Gabiria**

Astiberri Ediciones. Bilbao, 2025
Zuri-beltza. Azal biguna, hegalekin
296 orrialde. 18 x 27,2 cm. 25 euro
Nobela Grafikoa bilduma
ISBN: 978-84-19670-35-9

2. edizioa

Joe Saccoren lehenengo obra handi honek **zehaztasunez** eta **sentsibilitatez** aztertzen du prozesu sozial eta politiko konplexu bat. Hori dela eta, **Art Spiegelmanen** *Maus* komiki unibertsalarekin konparatu izan da.

PALESTINA, KOMIKI-KAZETARITZAREN FUNTSEZKO PIEZA, ORAIN EUSKARAZ

1990eko hamarkadaren hasieran, Joe Sacco izeneko komikigile gazte batek Palestinara bidaiatu zuen, eta han bizitakoak komikiaren forma artistikopean dokumentatzea erabaki zuen. Merkatuetan paseoan ibili zen, presoei elkarrizketak egin zizkien, manifestariekin solasean aritu zen, nekazariekin bazkaldu zuen, ospitaleetako gaixoak bisitatu zituen, eta, finean, Gaza eta Zisjordaniako herritarren bizitzan eta kulturan murgildu zen.

Esperientzia zirraragarri haren ondorioz sortu zen Palestina, Saccoren aurreneko kazetaritza-lan handia, eta azken urteotan argitaratu den obra politiko eta historikorik onenetakoa. Nobela grafiko hau kazetaritza berriaren oinordeko

ASTIBERRI
WWW.ASTIBERRI.COM
facebook.com/astiberri @astiberri astiberri_ediciones
Apdo. 485. 48080. Bilbao • Tel.: 689 213 317 • prensa@astiberri.com

zuzena da, eta komiki-kazetaritza deitutako korrontearen funtsezko pieza: dokumentu etnografiko aparta, garai hartako kronika garratza eta denboran gehiegi luzatzen ari den gatazka bati buruzko ikuspegi ezin pertsonalagoa izateaz gain, zinez liburu baliagarri eta esanguratsua da Ekialde Ertainak geopolitika garaikidean jokatzen duen eta garai hartan jokatzen zuen rola ulertzeko.

Palestina Art Spiegelmanen Maus sarituarekin konparatu izan da, Saccoren lan hau trebezia eta distira handiz barneratzen delako sozialki eta politikoki oso delikatua den gai batean, komikigintzaren mugetatik irten gabe. Edizio honek Edward Said idazle, kritikari eta historialari ospetsuak idatzitako hitzaurrea ere badu; hain zuzen ere, Said Ekialde Ertaineko gatazkaren inguruko aditurik errespetatuenetakoa da mundu osoan.

• Obra honek American Book Award saria irabazi zuen 1996an

"Originaltasun harrigarriko obra politiko eta estetikoa, inongo zerikusirik gabea palestinarrek eta israeldarrek izan dituzten eztabaida luze, sarritan zikin, eta desesperatuki bihurriekin... Nobelagile eta poeta pare batek izan ezik, inork ez du Joe Saccok baino hobeto deskribatu egoera izugarri hori".

Edward W. Said, hitzaurrerako idatzitako testutik

"Saccok bidea urratu du... bere esperientziaren arima jaso du, bizitako lokatz, izerdi eta beldur zital guztiekin batera: hitzak labur, kalteak luze... *Palestina*k toki bat merezi du dokumentalgintzaren gorenean".

The Journal of Palestinian Studies

"Hona hemen Saccoren erreportajeetako zurrunbilo indartsua, konpromisoz eta konplizitatez betea... Hau da kontakizun bisualek eskaini behar dutena, berehalakotasun hau, enpatia hau, narrazioa irekitzeko gaitasun hau, hitzen gainetik hegaldatzerainokoa".

Los Angeles Times

"Sacco marrazkilari morala da... zorretan gaude berarekin".

Christopher Hitchens

"Gerraren, zapalkuntzaren eta tentsio sektarioaren inguruko erretratu sakon, bihozbera eta aztoragarriak... Saccoren obrak gogorarazten digu nazioarteko informazio gehiena zurrunegia dela, eta sorkuntzak esparru hori eraldatzeko gaitasuna duela. Estatu Batuetako komunikabideetan justiziarik balego, ehunka Sacco sortuko lirateke".

Bookforum

EGILEA



Joe Sacco (Kirkop, Malta, 1960). Urtebete zuela, Melbournera (Australia) joan zen familiarekin bizitzera, eta han igaro zuen haurtzaroa. 1972an, berriz, Los Angelesera (AEB) aldatu ziren. Kazetaritzan graduatu zen Oregongo Unibertsitatean. 1983an, marrazkilari profesional gisa hasi zen lanean. 1986an Los Angelesera itzuli zen, Fantagraphics argitaletxe independentean lan egitera. 1988 eta 1992. urteen artean, mundu osoan bidaiatzen ibili zen. Palestinako egonaldiaren eta Gaza eta Zisjordaniako lurraldeetan bizitakoaren ondorioz, *Palestina* jaio zen (Astiberri, 2023), gero American Book Award saria lortuko zuen lana. Obra horri esker, komikia baliabide dokumental bihurtzeko oinarriak finkatu ziren, eta Saccok, bere sorkuntza-ibilbide luzean, jarraipena eman zion proposamen mota horri, autobiografian eta kazetaritzan oinarritutako hainbat nobela grafiko sortuz. Bere azken lana *Gerra Gazan* (Astiberri, 2024) da, eta euskaraz argitaratu zaion azken obra, berriz, *Gazako oin-oharrak* (Astiberri, 2025).

JOE SACCOREN BESTE LAN BATZUK EUSKARAZ



Gazako ohin-oharrak
432 orrialde. 29 euro
ISBN: 978-84-10332-83-6



Gerra Gazan
32 orrialde. 8 euro
ISBN: 978-84-10332-26-3


KAIRO
Trafikoa?
Kotxeen kea arnasten nabil, mukiak beltz!
Eta zarata?
Etxean musika-aparaturik ez, eta egiptoarren entretenimendua klaxonak dira!
A ze hiria!
EROAAAA!
15 milioi buru, azpian oilorik gabe!
Hainbeste piramide eta faraoitxorekin, akituta nago!
Hau zorabioa!
TAXI!
Atera nazazu hemendik!
Aulki bat hartzen dut
Deskantsua behar dut
Solasean hasten naiz hoteleko harrerakoekin
Giroa lasaiagoa da, eta filosofatzen hasten gara
MUSUL-MANAK ETA MUSULMANAK DAUDE.
Eta Shreef musulman maitemindua da!
Biolinak, arren!
Pragako andre bat!
Bi eguneko hasperen-festa!
Kandelak eta bidaiak Nilon barrena!
Kairoko Dorrera igo dira, Jainkoak daki ze preziotan!
Bi egunean 500 libera egiptoar xahutu ditu!
Eta onena: txortan ere ez dute egin!
Ondoan, Taha aritmetikatan hasi da!
ZURE HILEKO SOLDATAREN %600! URTE ERDIKO ORDAINA, BI EGUNEAN!
MAITE DUT
AHANZTEKO EDATEN DUZU!
ESAN ZIDAN SENARRA UTZIKO ZUELA NIGATIK! ETA UMEAK!
DIO SENARRA MAITE DUELA ORAIN! 500 LIBERA!

Shreef begira dut
Mendebaldekoa naiz
Ulertuko dut
NOIZBAIT EUROPAN ELKARTUKO NAIZ BERAREKIN.
Egiptotik ospa egin nahi du, beraz bagara bi
Nik Israelerako bisa nahi dut
ISRAEL?
EZ DUT ARAZORIK ISRAEL-DARREKIN
EUROPARREN ANTZEKOAK DIRA
BIRRINDU EGINGO NUKE ISRAEL!
Ufala! Ekialde Ertainean nago!
JUDUEK HAIN TRATU TXARRA JASO, ETA ORAIN EURAK DIRA PALESTINARRAK BERDIN TRATATZEN DITUZTENAK!
ETA KONTUA EZ DA HAN BIZI NAHI DUTELA! JABETU ETA JABETU, HORIXE NAHI DUTE!
Eta Camp David, zer?
Sadat Jerusalemen?
Beginen besarkadak? (1)
JA!
Upa! Barkatu!
J. SACCO 92
2

SADAT OSO GIZON ARGIA ZEN! BAZEKIEN ISRAEL INDARTSUA ZELA ORDUAN, BAINA SO URTE GEROAGO?
SADATEK PLAN BAT ZEUKAN!
Eta plana azaltzen dit
Nahasi samarra da
Ez ditut erabat ulertzen tankeen taktikak
Bitartean, Shreefek bere rockero gogokoenen zerrenda egiten du:
BARCLAY JAMES HARVEST... PINK FLOYD... GEORGE MICHAEL... DEEP PURPLE...
HARA BESTEA!
GAIA ALDATU DU!
HORRETAZ ONDOTXO DAKI, BAI!
ZENBAT GASTATZEN DUZU LIBURUTAN?
NI POBREA NAIZ, ETA HILEAN 30 LIBERA GASTATZEN DITUT LIBURUTAN!
ETA ZUK 500 LIBERA ANDRE HORRENGAN, BI EGUNEAN!
MAITE NAU.
MAITE? JA! UMEAK UTZIKO AL DITU?
Egun pare bat geroago, bisa lortu eta Kairo uzten dut
Suez zeharkatu eta Sinain barrena
Tanke suntsitu eta erreak nonahi: noiztik daude horrela?
73tik?
67tik?
56tik?
Autobusa maiz geratzen da, eta gidariak kanpora doaz beste gidariekin eta eskoltekin hitz egitera
Bide luzea da Palestinara, eta oso motela
Baina ni gogotsu nago, aizue
Zinez gogotsu
Hemen nago jada